

Maialen Lopez Lasa

A maila • **Aipamena**

Idazteak ekarri nau gaurkoan hona. Beharbada, ni ere norbaiten idatziz sortutako naiz...

Idazle hark istorio hau ,lehenengo hizkiz eta gerora esaldiz, orain dela ia 17 urte hasi zuen, azaroak 14 egun bete zituenean. Asko dira, ordudanik, antzezle den horrek ikasi dituenak bai eta irakatsi dituenak ere. Zenbatu ezinak dira, halaber, bizitakoak, nostalgiaz oroitzen eta oroituko dituenak, eta oraindik ere, lumak idatzi ez dituen mila bider gehiago, geratzen zaizkionak. Hala ere, bizitza den istorio honek, eskertzekoak ditu batez ere,sarriagotan esan beharko liratekeen, baina, esaten ez diren hitz xume haiek.

Hortaz, besterik gabe, sari hau, gidari izan ditudan ama eta aitari ,zein, esaten ez diren hitz handi haiek, idatzi nahiz irakatsi dizkidaten aitona eta amamari eskaini nahi nieke, zuek baitzarete, egiaz, istorio honen arima...



AIDANEZ, DENBORAK...

I. Behin,
haize leunak luzatu zion
eskua olatuari,
eta marearen baitan dantzatu zuten
udako Vals zolia.

II. Marearen lumak
ele xaloz,
kresalaren zigiluz,
idatzi zuen hondarretan
maitasun olerkia.

III. Eguzkiaren printzek
grinaz ferekatu zuten zeru urdina,
eta hodeiak lotsati, ero,
ortzian iheskor.

IV. Sargoriak
itsasoaren zilarrezko dizdirak
zituen ispilu, eta
ihintzaren diamante tantak koilare...
fidakor eta ustetsu....

V. Turmoiaren orroa entzun zen urrunean.
Urriko itsas enbataren susmo...
suzko argiz bete zen zerua,
udazken margoaz andere lurra.

VI. Ipar-haizeak kulunkatu du
lizar hostoa,
emeki-emeki xuxulartu dio
gauaren eresia.

VII. Orbelak maindire xumez
josi du sehaska horia
eta behe-lainoak
zetazko errezel zuria.

VIII. Eguzkia ostendu da
hasperenez...
etsipenez du agurtu
Ilargiaren irri ixila.

IX. Biharamunean,
atetzarra zabalduko dio ipar haizeak,
duintasunez biluztuko du basoa
negu gordinak
eta zuriz jantzi bere mirabe zinak..

X. Eta euriak,
euriak ezpain umelez
besarkatuko du
goibel den egunsentia.